

# Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 29. zenb. 1996ko azaroa. 100 pzta.



*Portugaldarrak belar  
gorriaren bila*



*Tapiak musika banda  
utzi du*



**Elkarrizketa**

**Elena Apestegi,  
Ginean  
urtebetean  
egin duena  
kontatuz**

**Gaztedia**

**Gazte  
Batzordea  
(GB)  
Goian Bego?**

**Ze berri?**


**Oikiako  
frontoia egiten  
hasi dira  
dagoeneko**

FOTOTEKAK utzitako argazkia



ITSASOAK ERAMAN ZITUEN

Zumaiar askok oraindik ere gogoan duten istripu baten ondorengo argazkia da goikoa. 1960ko azaroaren 15ean izan zen. Itsasuntzi baten irteera ikustera joan ziren eskola profesionaleko gazte batzuk eta itsasoa oso haserre zegoen arren Paolbidean aurrera abiatu ziren. Olatu ikaragarri batek herriko 7 mutil uretara bota zituen eta hauetatik 6 bertan itota hil ziren. Zazpigarrena Rudof Holkek atera zuen uretatik, salto egin eta bazterrera ekarriz. Argazkian Padre Rafael eta On Teodoro zenaren inguruan eskolako zuzendaria, Komandante Marina eta beste zenbait lagun daude, 6 gazteei lore eskeintza egiten.



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

 fundazioa  
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Argitaratzailea



Zumaiako Udalak diruz lagunduriko aldizkaria



**BALEIKE**  
**HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea  
tfnoa: 86 10 56  
faxes: 861742

argitaratzailea  
**ZUMAIAKO**  
**GAZTE**  
**BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Eneko Dorronsoro  
Xabier Azkue  
Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta  
Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

GEG, Natur Taldea, Argazki  
Elkartea, Eulali,  
Miriam Romatet, Aintzane  
eta konpainia, Jon Ander Garzia,  
Imanol Manterola, Jon  
Manzisor, Karmelo Arroia,be,  
Josu Egaña eta Arantxa  
Eizagirre, Ainhoa Iturbe, Mattin,  
Inaxio Manterola, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.  
(Zubillaga - Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere  
gain hartzen aldizkarian  
adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzukizunik.

Izerdi patsetan  
**Igor Beristain**  
**ziklo-krosetik**  
**errepidera**

....24. or.



Musikaz blai  
**POk maketa**  
**bat kaleratu**  
**du**

....28 or.



Ze berri?  
**Hasi dira**  
**Oikiako**  
**frontoiko**  
**obrak**

.... 8 or.

**Hau da Marca!**

Goizean goiz irten kalera eta bi edo hiru ale ikusi ditut. Eguerdirako beste dozena bat antzeman ditut gutxienez gizonezko batzuen besapean edota esku artean, eta kontu honi ez diot usain onik nabaritzen.

Txiki-txikitatik egunkarizale amorratua izan naiz. Izugarriko garrantzia eman izan diot egunero berritzen doazen orrialde handi horiei patxada ederrean irakurtzeari eta orain ere egunean bi egunkari "irensten" ditut gutxienez, eta askotan hiru ere bai.

Baina betidanik *Marca*, *El Mundo Deportivo*, *As* eta antzeko egunkari deportiboek atzerakoa eman izan didate. Zergatik? Titular handi, grafiko, argazki eta kolorezko irudi horien atzetik kolore bakarra egon ohi delako: zuria, blaugrana edo dena delakoa.

Ez pentsa kirola gorroto dudarik, ezta pentsatu ere. Baina bestelako egunkariak dakarten kirol informazioak erraz asetzen nau eta ez zait interesatzen Ronaldok dentistarengana egin duen bixita edota Rauli ezkerreko barrabilean atera zaion koxkorra.

Horregatik gaztetxo askok egunkari hauek bakarrik irakurtzen dituztela ikustean pena sentitzen dut. Euskal Herrian eta munduan gertatzen denaren berri izateari paso egiten diotelako; kirola ez den beste edozer gauzarekiko gero eta interes gutxiago agertzen dutelako.



**Xabier Azkue**



**PREMAZKO TELEFONOAK:**

Kultur Etxea .....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44


## % 0,7A, KARITATEA ALA JUSTIZIA?

Karitatea bertute teologal bat da eta lagun hurkoa norbera bezala maitatzean datza. Justiziak, berriz, ez du konnotazio erlijioso edo humanistik eta bakoitzari berea dena ematean datza. Bi terminoen deskribapen zehatza eginez, nire asmoa % 0,7aren errebindikazioa Hirugarren Munduarekiko karitate-ekintza gisa hartu beharrean, jende guztiak **justizia**-ekintza kontsideratzea da, merkatu libreko sistemak kaltetu dituenekiko ekintza hain zuzen ere.

Merkatu ekonomikoaren globalizazioarekin desberdintasun sozialak ez dira herrialde bereko hiritarren artean egoten; desberdintasun sozial handiena Lehen eta Hirugarren munduaren artean daude, ifar eta hegoaldekoen desberdintasun estrukturalak dira. Gure borondatezkoak ez diren zirkunstantziengatik lehen munduan jaio gara gu, baina etikak aberastasuna birbanatzea eskatzen digu, eta ildo honetan % 0,7a urrats bat besterik ez da. Asko % 0,7aren aurka daudela jabetzen naiz, gure gizartean ere arazoak badaudela eta lehenbizi hauek konpondu behar genituzkeela argudiatuz. Baina baieztape hori demagogia merkea da kontuan hartzen badugu, hirugarren mundukoek hamar bider gutxiagoren truke hiru bider lan gehiago egiten dutelako lortu dugula gure bizi-maila.

Norbaitek esango du berak dirua emango lukeela baldin eta bankuan duena langile baten soldata izan ordez

# GUTUNAK



milioiak balira. Baieztape honek honako ipuin hindu hau gogorarazten dit:

«Monjeen jakinduriarekin harritura zegoen gazte batek monasterio batean sartzeko eskaera egin zuen. Aurrez egin beharreko elkarrizketan monasterioko buruak esan zion monje jakintsua izateko, urrezko hiru txanpon izanez gero hauei uko egin beharko liekeela, eta gazteak baietz esan zuen. Esan zion monje jakintsu izateko, zilarrezko hiru txanpon izanez gero hauei uko egin beharko liekeela, eta gazteak baietz esan zuen. Azkenik, esan zion monje jakintsu izateko brontzeko hiru txanpon izanez gero hauei uko egin beharko liekeela, eta gazteak ezetz esan zuen. Ezetz esan zuen benetan brontzeko hiru txanpon bazituelako».

Ipuin hindu zahar honekin esan nahi dudana da erraz ematen dugula ez daukagun horretatik, baina nekez ematen dugula daukagunetik. Administrazio publikoko aurrekontu desberdinen % 0,7a ematea Justizia eta Elkartasun ahalegin bat da, sistema ekonomikoak gutxiesten dituen horiei zuzendua. % 0,7a Justizia-oihua da. Merkatu libreak eskrupulorik ez badu ere, guk ezin dugu berdin jokatu.

Argudio erraz honegatik iruditzen zait Udaleko hurrengo aurrekontuetan Hirugarren Mundua

garatzeko % 0,7ko partida bat egon behar litzatekeela. Neurri honekin Zumaia urteko aurrekontutik % 0,7a elkartasunez eskaintzen duten herri eskaldunen zerrenda labor horretako partaide izango litzateke. Laster betetzea espero dudan neurri honekin ez dira munduko sistema kapitalistaren orekarik ezak erabat konponduko. Baina ez da emaitzaren etika mugiarazi behar gaituena, konbikzio edo uste osoarena baizik.

**Ion Albizu Agirrezabalaga**

## ZUMAIAKO ALKATEARI

Ikusten denez, gauza batzuntzako ez dago dirurik herrian. Hori aspaldiko gauza da eta horrela jarraituko duela uste dut. Norberaren onerako bada, azkar eta ondo egiten dituzue gauzak eta herriko jendeari ez diozue kasurik egiten.

Ez dakit jakingo duzuen zeri buruz ari naizen; lasai, orain azalduko dizuet eta nire kexa:

Zubi txikitik hasi eta Amaiaiko plazararte dagoen errepide hori da nire kexa. Egunean ehundaka kotxe, kamioi, motor... pasa arren ere, ez du axola!!! Eta ez dut esaten dauden zuloak tapatzea, baizik ete galipota kapa bat bota Zubi Txikitik Amaiaiko plazaraino. Ez baduzue ulertzen zer eskatzen dudana, hauxe da: San Migelen dagoen "autopista" hori bezala jartzea herriko sarrera. San Migeldik baino kotxe, kamioi, motor... gehiago pasatzen direla uste baitut. Kexa hau ez dut bidaltzen inbidia dudalako, baizik eta beharrezkoa ikusten dudalako.

**A. Etxabe**

**Habana**  
auto  
  
Mekanika eta  
karrozeria  
Axular ibiltokia, 14 86 00 70  
Zumaia

**ROSI**  
GARBIKETAK  
• Etxeak eta dendak  
• Enpresa eta auza lanak  
• Europa garbiketa eta tintaketa  
Basadi 3-A  
Tlf. 861670

**BELARDENDA**  
**SIWA**  
  
Esther Blanco  
OSTEOPATA-MASAJISTA  
Basadi 5-C behea  
Tlf: 143404 - 860012



ASIER URBIETA

**Txipiroiak**

Motora hartzen dute denek goiz-goizetik jertse batez babesten direla hotzetik gero koainak bota ezker-eskuinetik hola ibiltzen dira txibien atzetik

Abiatu ondoren itsaso aldera txibi bat hartu eta zera gertatzen da "donettekin" gertatzen den gauza berbera denak hurbiltzen dira zure aldamenera



Josu Aizpurua

## Where are you from?

Urtebetez lurralde arrotz batean askatasun osoz ibili ondoren zerbaitetaz ohar zintezke.

1- Lehenengo galderari erantzuteak erreza dirudi, niretzat behintzat: I'm from the **BASQUE COUNTRY** eta ondoren Euskal Herria, euskal hizkuntza eta euskal kultura espainiarretik eta frantsesetik oso ezberdina zela eta nortasun propioa dugula erantzuten nien.

Hala ere, galdera berdinari hemen erantzutea askoz zailagoa zait. Lagun artean nabilela konturatzen naiz erdera barra-barra hitz egiten dela nahiz eta guztiak euskaraz jakin. Tira ba, lehenengo frustrazioa!

Gainera badirudi euskararekiko zaletasun honek erantzunkizun politikoak dakarzikidala, kanpoan egoteak "radikaldu" egin nauela eta koktail molotovak jaurtitzen dituzten folklorikoak atsegin zaizkitela e.a. Lagunak, zoazte popatik hartzera!

2.- Orain Zumaiako herriari eta gazteei errietaldi bat. Gai hau berandutxo badator ere:

Europaldean "ingeniari paisajista" bezalako unibertitate tituluak ateratzen dira, hemen oraindik ez det uste. Hala ere ez da horrelakorik ikasi beharrik Zumaiaren erdi-erdian zegoen Gernikako parkeko zelai eder eta zabalean egin duten txiringito-txabola-taberna-errestaurantea "de kulo" geratzen dela konturatzeko.

Itzurungo hondartzan marea pareteraino iristen zen egunetan ez zen batere gaizki egoten etzanda, orain negutegi barneko mahai eta aulki batean afaltzen egon ordez. Izorratzen hasiz gero, egintzazue bada, Argiñanoren gaztelua bertan, eta ez ijittoen arkitektura banguardista hori! 2. frustrazioa.

Gaztetxo entzun ezazu zer esango deten:

X-eko herrian harrizko banko batean 60-80 urte inguruko agure bizarzuri, ilezuri bat eserita zegoen, behatz tartean 10m-ko distantzira usain zitekeen porro bat zuen. Lasai-lasai zegoen, egiten ari zenaz benetan kontzentratua eta zurrupada bakoitza gozatuz.

Sekulako inbiria eman zidan, bata porroagatik eta bestea erretzeko eragatik. Ardo ona tamainan eta gozatuz hartzen den bezela besteak ere hala beharko luke. Eta ez poteoan hartzen den ardo merkea bezala "a sako"; horretarako hobe dek Lucky pakete bat irenstea.

Besterik gabe ea norbaitentzako baliagarriak diren hitzak. Ah! eta beste gauza bat ikasi dedana, lagun hurkoa eta ez dena errespetatzea da, eta hau ez da gutxi.



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.  
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

**AIZMAN-KOS S.L.**

SANEAMENDU ETA  
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta  
auzoa z/g  
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24  
20740  
IRAETA -ZESTOA

Antonio Etxabe  
Gizonezkoen erropak



Zumbillo 4  
Tlf: 861407



# Antonio Tapiak Musika Bandako zuzendaritza utzi du

**1980. urtetik bere ardurapean izan ondoren, Tapiak bandako zuzendari izateari utzi egin dio. Erabaki hau gainera hein handi batean espero zen, azkenaldian batik-bat hainbat zurrumurru zabaldu baitzen honen inguruan.**

Zehazki musika bandako partaideen eta Antonio Tapia beraren artean arazoak zeudela, kalean komentario asko sortarazi duen kontua izan da. Tapiak dimisioa aurkeztu ondoren, kontu hau argitu nahi izan dugu. Horretarako zuzendari ohiarengana jo genuen, baina berak, ez zuela ezer esatekorik erantzun digu; beraz, bandako komisiorekin bakarrik hitz egin dugu argibide horiek jasotzeko.

Herrian zabaldutako zurrumurru horiei dagokienez, komisiok garbi utzi nahi du "ez dela inolako arazo pertsonalik egon Tapiarekin, eta aurkeztu duen dimisioa bere erabaki bat izan dela, besterik gabe". Dena den, aitortu dute goiz edo beranduago kargua utziko zuela seguru zeudela, izan ere komisioren hitzetan, "Tapiaren etapa zuzendari lanetan agortuta zegoen. 16 urte, urte asko dira eta dagoeneko ez zigun ezer berririk aportatzen, estankatuta aurkitzen ginen".

Zentzu honetan aldaketa baten beharra zegoela azaldu dute, beste freskotasan bat, ideia berriekin. "Honek ez du esan nahi guk presionatu egin diogunik



**16 urte eman ditu Antoniok bandan.**

zuzendaritza uzteko. Guk bera egoeraren jabe egitea nahi genuen, konturatzea zer gertatzen zen".

Egoera argituta momentuz Marixi Sesma gaztea izango dugu bandako zuzendari, kanpotik berri bat ekarri artean behintzat. Antonio Tapiaren zigilua ondo errotuta geratu bada ere urte guzti hauetan, berregituratze baten laguntzaz, aro berri bati helduko dio hemendik aurrera Zumaiako Udal Musika Bandak.

Ea ba orain artekoa bezain oparoa, edo hobea suertatzen den. ■

## laburrak

### Hitanoa aztertzeke bi lanpostu

Zumaian hika hitz egiteko ohitura galtzen ari dela ikusiz eta gure hizkuntz ondarearen zati berezietako bat dela kontuan hartuz, Zumaiako Udalak herriko hitanoa aztertzea erabaki du.

Lan honen helburua, gaur egungo hitanoaren egoera aztertzea da eta gure zaharrek erabiltzen dituzten formak jasotzea. Eta ondorenean, ikastaroak antolatuko dira herriko hitanoa ikasi eta erabiltzeko.

Azterlan hau egiteko, **bi pertsona kontratatu** nahi dira sei hilabeterako, egun erdiko lana eginez. Hemendik egun batzuetara zabalduko da deialdia eta bertan parte hartzeko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zumaiarra izatea.
- Langabezian egotea.
- Alfabetatua izatea (EGA)
- Euskal Filologian diplomatua izatea (gutxienez).

Eta merezimendutzat hartuko dira:

- Euskal Filologiako lizentziatura.
- Herriko euskara ezagutzea.
- Hika hitz egitea.
- Gai honi buruzko proiektua aurkeztea.

*Jesuskoa  
Jatetxea*




*Tfnoa 86 17 39 • C/Itia - Zumai*

*Paki*   
*Belardenda*

**OSASUN NATURALA**

**Erribera kalea 2, Tf: 143156 - 86 22 44**

**MILA ILE APAINDEGIA**



**Ile - kosmetikan diplomatua**

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAI

## Txatok familia aurkitu du



Telebistako Lobatonen programan azaldu ondoren, San Juan egoitzan dagoen Jose Fernandez Luque "Txato"-ri goinata eta lau iloba azaldu zaizkio. Hilaren 19an ospatu zuten "Familiaren eguna" egoitzan eta bertara joan zitzaizkion bixitan Mario, Juanita, Nona eta Angustias (goinata).

## CHFÂE SALDU DUTE



Bermeoko enpresa batek erosi du azkenean azken 5 urteotan gure artean egon den Chfâe untzia. Maroko aldean olarruak harrapatzeko erabiliko dute eta laster joango da gure artetik.

## laburrak

### Idazmakinak Kubara

Parrokiko Gazte Elkarteak 53 idazmakina bildu ditu kanpaina labor bat egin ondoren. Beste zenbait materialekin batera dagoeneko bidali dituzte Kuba aldera.

Julene Azpeitia Guraso Elkarteak 25 eman ditu, institutuak 20, udaletxeak 2 eta herritarrek emandako beste sei idazmakina ere jaso dira.



Laguntza xumea da Kuban gaur egun duen egoera ikusita, baina laguntza guztiak bezala baliagarria izango da zalantzarik gabe beharrean dagoen hango jendearentzat. Haien izenean, Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie kanpainen parte hartu duten guztiei.

## EGOKI

ERLOJU DENDA

E.Gurrutxaga plaza, 6  
ZUMAIA

## AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

**IZETA**  
orrastegia


Urumea 6  
Tlf: 862083

**ANA**  
ETXEKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga Enparantza  
Telf. 86 11 57 ZUMAIA


**Maiaur**  
olastokia

# Oikiako frontoiko obrak hasiak dira



Telefonica eta Iberdrolaren poste batzuk kendu ondoren hasiak dira frontoi estalia egiteko lanak. Azkenean Antzibar enpresa azpeitiarra izango da honetaz arduratuko dena eta 38.987.950 pezetako aurrekontua izango du horretarako. Hasierako kalkuluen arabera 6 hilabete beharko dira frontoia bera eraikitzeko eta beste 4 teilatua eta itxiturak egiteko.

Aspalditik ari ziren oikiarrak frontoi estalia eskatzen eta 1998rako prest izango da, dena ondo badoa. Ez da oso handia izango; 22 metro izango ditu luzeran eta 8 zabaleran, eta badirudi neurri hauek ez direla hain txikiak eskuz edota palaz jokatzeko. Aldagela eta dutxak izango ditu eta baita gauzak gordetzeko edota bilerak egiteko beste gela bat ere. ■



## laburrak

### Gasolindegia handituko dute



Lehenengo zaharra bota ondoren, berunik gabeko gasolinarentzako beste deposito bat sartuko dute eta lehen zegoen gasolindegia baino handixeagoa eraikiko dute Zubi-Txiki inguruan. Bitartean gasolina behar duenak Narrondo alderaino joan beharko du gutxienez.



## IRLANDARRAK GURE ARTEAN

Egun hauetan Irlanda mendebaldeko Carna herritik etorritako 15 ikasle izan ditugu gure artean, Zumaiaiko Institutuak gonbidatuta. Hamabost egunetan zehar denetik egin dute: "gaeliko-ingelesa-euskara" hiztegi bat lantzen aritu dira, inguruko herrietara bixitak egin dituzte (Zestoa, Getaria, Aia..) eta hemengo kirolak eta ohiturak ere ezagutu dituzte: pelota, arrauna, sagardotegiak, trikitixa, e.a.

**Arkupe**  
 Okindegia  
 eta gosariak  
 Kale nagusia, 2

**ERTZ**  
 INFORMATIKA  
 • Urria-Abendua  
**WINDOWS, WORD**  
 • EXCEL  
 Mendako Mariñela-3, TEL./Fax: 14 33 95

**ORDENAGAILUAK MULTIMEDIA**





**TTIPI-TTAPA ZUMAIAN.** Azkoitiatik Zarautzerako bidean Zumaian hartu zuen atsedean Amnistiaren aldeko Gestorek antolatutako martxa honek. Urriaren 26an iritsi zen Zumaiara eta hurrengo goizean irten zen, gaua Gernika parkean pasa ondoren.



## Getairako bidea negargarri dago

Kaminerotako aldapan bideak berriz ere behera egin du eta ibilgailu astunak igarotzea galarazi egin dute, karril bat moztearekin batera. Inguru honetan lurrikara bat izan dela dirudi, ikaragarritzko zuloak sortu baitira errepidean. Zarautz eta Zumaia artean 3 lekutan ari dira lanean eta normalean baino 10 minutu gehiago behar dira Zarautz aldera joateko.

### laburrak

#### Ixiar gose greban



Lehengo hilean elkarrizketatu genuen Ixiar Arrizabalaga gose greban sartu da euskal preso politikoei hasi duten txanda berri batean. Honekin Euskal Herriko kartzelatan biltzea eskatu nahi dute batez ere. Aipagarria da Patxi Aristiren epaiketa amaitu ondoren Ixiar Bonxe (lugo) aldera eraman zutela eta Patxi Caceresera.

#### Koipea Narrondo ibaian

Azaroaren erdi aldera Narrondo ibaian olio eta koipe ugari azaldu zen, eta bazterrak eta moilan zeuden batel eta motorak ederki zikindu zituen. Bi edo hiru egunetan koipea ez zen erabat desagertu, gainera.

Motorazale batzuk haserre agertu ziren arren, guk dakigula ez zen mustrarik jaso edota salaketa jarri. Badirudi ibaiaren ondoan dagoen fabrika izan zela lantegian garbiketa egin ondoren koipea Narrondo ibaira isuri zuena.



**ZUMAI A**



**AUTO -ESKOLA**



- \* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- \* Praktika eta azterketak Azpeitian
- \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAI A



**TABERNA**

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

# Kantauriko belar gorriak biltzen

Itsasoa harrotzen denean goiak eta beheak astintzen ditu, eta orduan belar gorri bat bat pausatzen da gure kostaldeko haitz eta hondartzetan: oldia edo alga da, *Gelidium* motakoa. Oldi hau, edo zehatzago esanda, oldi honetatik ateratzen den Agar-Agar produktua oso erabilia da kosmetika munduan eta zenbait elikagai loditzeko (E-407). Horregatik 6-7 familia portugaldar itsasoari begira bizi dira, belar gorri preziatua noiz azalduko.



*Gizon-probaren antzekoa da batzutan, baina ez da kirola, lana da.*

Azken urte hauetan ikusi ahal izan dugu nola noizean behin itsasoak oldi piloa ekartzen zuen gure kostaldera, batez ere Itzurun aldera. Orduan, laster baino lehen, portugaldarrak azaldu izan dira beti, beren land-rover zaharretan sartuta.

Hasera batean honen atzean negozio ederra dagoela pentsatzen dugu eta herriko jendearentzat ere lana egon daitekeela bertan. Baina portugaldar "beterano" batzuk aitortu digutenez oso lan zikina da hau, gogorra. Oldi guztia bildu ondoren, zakar guztiak kendu behar zaizkio lehortzen utzi baino lehen, eta pentsatzen dena baino lan gehiago ematen du honek.

Hemen biltzen duten oldia ez da oso kalitate onekoa, gainera, eta ezin

da konparatu ere egin Donostia aldean jasotzen dutenarekin. Han arrantzaleek zuzenean itsasotik hartzen dute oldia, itsasuntzietan joan eta salabardoak erabiliz.

## **Zumaia aldeko oldia oso zikina da, horregatik lehortu eta garbitu egin behar izaten da**

Oldi bustia saltzen dute arrantzaleek, Burgoseko enpresa batera, eta 45 pezeta inguru jasotzen dute kilo bakoitzeko. Oldi lehorra hiru aldiz gehiago ordaintzen duten arren, kontuan hartu behar da lehortzerakoan pisuaren laurdenarekin edo geratzen dela.

Zumaia aldean ibiltzen diren portugaldar hauei ez diete bustia onartzen, oso zikina izaten delako. Zakarra kendu eta lehortu ondoren ere oso gutxi ordaintzen diete; aurtan oraindik ere ez dute batere saldu, eta diru gehien eskeintzen dienari emango diote oldia, Burgosera, Oviedora edo beste lekuren batera. Aipagarria da iaz 45 pezeta inguru jaso zituztela kiloko, Donostiako oldi bustiarengatik ordaintzen dutena hain zuzen ere.

Sei-zazpi familia dira Zumaian lanean dihardutenak, baina ez dira elkarlanean aritzen: bakoitzak berea jasotzen du eta kitto. Batzuk besteak baino hobeto prestatuta egoten dira ibilgailu eta materialei dagokienez, baina oraindik ere ez dute asmatu oldia berak bakarrik biltzen duen makinarik



**OPTIKA  
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1  
20750 ZUMAIA Tel. 143057



Juan Belmonte 6  
ZUMAIA

Tnoa: 860415

eta lana gogor egin beharra dago edozein modutan ere.

**Portugaldarrak garai berrietara egokitu eta modernizatzen ari dira pixkanaka**

Oldia uretan dagoenean eta oso itsaso zakarrik ez bada behintzat bertatik ere jasotzen dute askotan. Horretarako oheen burnizko jergoiak erabiltzen dituzte, sareekin lotuta. Gerriraino sartu, zaku bat izango balitz bezela sarea bete eta ondoren lehorrera atera behar izaten da, arrastaka.

Land-roverrak edo furgonetak kargatu ondoren, ez dira hondartzako lanak amaitzen, behin baino gehiagotan kargarekin hondarretan geratu eta arazoak izaten dituztelako bertatik irtetzeko. Bultzaka edo tiraka nola edo hala lortuko dute, hala ere, aurrera egitea. Bedua aldean jasotzen dute oldia gehienbat eta batzuk bertan bizi dira.

**Ibilgailu flota, neoprenozko trajeak eta telefono mugikorrak**

Portugaldar hauek ere garai berrietara egokitu eta modernizatzen



*Batzuetan furgonetak bata bestearen ondoan pilotzen dira.*

ari dira pixkanaka. Batetik gero eta ibilgailu handiagoetan ibiltzen dira: furgoneta txikiak, handiak... Bestetik ura prexko dagoenean neoprenozko trajeak ere erabiltzen hasiak dira zenbait lagun. Lehorrean ibili ohi diren beste batzuk, azkenik, telefono mugikorra zintzilik dituztela ikus ditzakegu; garai batean aurrera eta atzera ibili behar izaten zuten familiako kideekin hitz egin edota oldi gehiena non zegoen abixua eman edota jasotzeko.

Zenbait kidek diru pixka bat bildu dute, eta Azpeitin edo inguruko herriren batean pixutan sartzeko aukera izan dute. Jende asko mantendu beharra dago eta inor ez omen da aberastu, ordea. Hori bai, oldia ez da urte guztian egoten, eta urtean zehar beste zerbaiti heldu behar eta txatarra edota papelarekin moldatu behar izaten dute. Baina badaezpada beti egongo dira itsasoari begira, honek ematen baitie hainbeste ahotara joango den eguneroko ogia. ■

**ZALLA**  
 Taberna - Erretegia  
**PLATER KONBINATUAK**  
**OTARTEKOAK**  
**OILASKO ERREAK**  
 San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

  
**Erribera kalea 6**  
**Tel / faxa: 861707**

**E G U Z K I**  
**PUB**  
**KOKTEL**  
**BEREZIAK**  
 Basadi Auzategia  
 9-A 2-B  
 ZUMAIA

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**  
  
 Gidatzeko karnet guztiak  
 -Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituen  
 -Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia  
 -Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.  
**P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416**

  
**Loitz**  
 \*Eskola eta bulegorako materiala  
 \*Enkoadernazioak  
**Erribera 4**  
**Tel/Fax: 143422**  
 \*Fax publikoa  
 \*Aldizkari eta opariak

*Elenak urtebete pasa du Ginea Ekuatorialen, bertako haur eta helduei klaseak ematen. Mundua aldatzeko ametsarekin joan eta mundua izan da bera aldatu duena. Teodoro Obiang diktadorearen*

# Elena Apestegi

*menpe bizi den herriaren egoera bertatik bizi*

*eta horrelako esperientzia bat bizitzeko une egokiena zela pentsatu zuen.*

*izan du. Bere esperientzia pertsonalaz gain, bertako jendearen bizimodua nolakoa den ere kontatu digu. Arte Ederretako ikasketak amaitu*

## “Emakumea da Gineako gizartearen zutabea”



Gineako esperientzia oso aberasgarria izan da Elenarentzat.

**“Hemendik joatean pentsatzen duzu mundua aldatzea. Baina gero mundua da zeu aldatzen zaituena”.**

**NOLA HARTU ZENUEN HORRELAKO ESPERIENTZIA BAT BIZITZEKO ERABAKIA?**

Ez zen bat-batekoa izan. aspalditik neukan pentsatua. Karrera amaitu eta une aproposena zela ikusi nuen, oraindik ez baituzu lotura gehiegi.

**ZEINEN BITARTEZ JOAN ZINEN GINEARA ETA NOLAKOA IZAN ZEN BIDAIA?**

Nahiko zaila izan zen aukera bat lortzea. Ate ugari jo nituen: ONG-ak, talde erlijiosoak... Denek pega berdina jartzen zuten, jende asko zegoela eta ezin zutela edozein bidali aurretik ezagutu gabe. Kolonbiara joateko aukera izan nuen, baita Perura, baina ezinezkoa izan zen. Azkenean, Gineakoa sortu zen, Gasteizko monja karmeldar baten

bitartez. Nahiago nuen Hego-amerikara joan, kulturagatik, baina neure buruari esan nion: “Ez zenuen nahi 3. munduko esperientzia bat nahi? Ba hortxe duzu!” Ni eta Iruñako neska bat joan ginen. Bisadoa lortzeko arazo ugari izan genituen, arazo politikoengatik. Azkenean, bertako gotzaiaren bitartez lortu genuen.

**BEHIN GINEARA IRITSITA, NON BIZI IZAN ZARA ETA ZEIN IZAN DA ZURE LANA?**

Añisok herrian izan naiz. Bertako Fang hizkuntzan *elefanteen sarrera* esan nahi du. Herri honetan bi eskola daude, bat publikoa eta bestea pribatua, karmeldarrena. Nik publikoan egiten nuen lan, baina bizi

**ITSASKI**  
supermerkatua



Urumea kalea z/g  
Zumaia

**MATE**  
ILEAPAINDEGIA



Berezitasuna ileen sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



**SUKALDEKO ALTZARIAK**

**DORNUTEGI**  
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behean  
Telefonoa: 862051

20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)

**“Hauteskunde garaian bi hilabete inguru egon ginen etxetik kilometro batera mugitu ezinik. Beti komenigarria zen kotxeko depositoa beteta edukitzea”.**

karmeldarren egoitzan bizi nintzen, Iruñako lagunarekin. Bosgarren mailako haurrez aurduratzen nintzen. Baita ere, inguruko herrisketako irakasleekin biltzen nintzen, laguntzeko, eta arratsaldetan helduen heziketa nuen, denak emakumeak. Irakaskuntza lana ez da hemen bezalakoa. Haurrek kilometro ugari egin behar dituzte oinez eskolara etortzeko, ezer jan gabe etortzen dira, ez dute libururik, eta zuk gainera atenzioa eskatu behar diezu. Gogorra egiten da.

### **NOLA DAGO ANTOLATUTA GINEAKO GIZARTEA?**

Emakumeek ezin dute parte hartu ekitaldi askotan. Gizonak basora joaten dira, palmera bat bota eta Malanba izena duen edari bat hartzen dute elkarrekin. Emakumeek debekatua dute. Irakasle gehienak gizonak dira. Ikasleen artean ere, kurtsuak aurrera joan ahala gero eta neska gutxiago dago haurdun geratzen direlako. Niri kurtsu batean lau neska geratu zitzaizkidan haurdun. 13 urterekin hasten dira sexu harremanetan. Askotan ez dakite norena den haurra. Ez dute antisorgailurik erabiltzen, batez ere

euren kulturak ez dituelako onartzen. **ETA ZERTAZ BIZI DIRA, NONDIK ATERATZEN DUTE BIZIMODUA?**

Gineako gizartearen zutabea emakumea da. Bera arduratzen da haurrak zaintzeaz, jatekoa ekartzeaz... Egun osoa larrean lanean, etxera joan bazkaria prestatu, lanak egin... Familiaren antolaketa ezberdina da, gehiago funtzionatzen dute tribu bezela. Gizonezkoak poligamoak dira. Noizbehinka arrantzara edo ehizara joaten dira. Tranpetaz baliatzen dira eta askotan ehiza jasotzera joan eta ustelduta aurkitzen dute.

### **OSASUN ARAZO LARRIRIK BA AL DUTE GINEAN?**

Gaixotasun larriena paludismoa da. Hilkortasun tasa izugarria dago, ez baitago sendagairik. Jendea diarreatatik hiltzen da. Hori hemen ulertezina da. Gainera, gaixotasunak

erraz zabaltzen dira, baldintzak oso txarrak baitira. Euren beharrak etxearen atzekaldean egiten dituzte, animaliak dauden eta umeez jolastan duten toki berean.

### **Diktaduraren menpe**

**BAINA EZ DIRA HORIEK GINEAK DITUEN ARAZO BAKARRAK. OBIANG-EN DIKTADURAK JENDEAREN ESKUBIDEAK ZAPALTZEN DITU.**

Askotan lotuta sentitzen zara. Hauteskunde garaian egon ginen bertan. Bi hilabete inguru egon ginen etxetik kilometro batera mugitu ezinik. Gobernuaren aurkako ustezko konfabulazioa zen aitzakia. Kotxearen depositoa beteta edukitzea komenigarria zen. Ginea Euskal Herriaren tamainakoa da eta Kamerunera joateko aukera zegoen.



*Ekitaldi batzutan gizonek bakarrik har dezakete parte.*

**JOSEBA OSSA**  
**- ITZULPENAK -**

**EUSKARA-GAZTELERA-  
KATALANA-INGELES-  
FRANTSESA**

Tel / fax: 148065

**ekin**  
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
INSTALAZIO MUSIKALAK  
AKUMULADOREAK  
ALARMAK  
ANTENAK  
POSTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97  
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1<sup>a</sup> - Telf. 14 34 74  
20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

**INPERNUPE**  
**ELKARTEA**

Erribera kalea Telefonoa: 861523

**ZUMAIA**



Urtebete pasa du Ginea Ekuatorialen irakasle lanetan.

## NOLAKOAK IZAN ZIREN HAUTESKUNDEAK?

Hasteko bertan ez dago erroldarik. Orduan, hala nola egindako zerrenda batzutan oinarritzen dira. Jendeak derrigorrez joan behar du botoa ematera. Izena entzutean, hurbildu eta guztien aurrean papeleta aukeratu behar du, denek ikus dezaten. Horrela, PDG-ari (Obiangen partidua) botoa ematera behartuta daude. Bestela, gauean atxilotu eta torturak jasateko arriskua dute. Pertsona aurkezten ez bada, PDGkoek euren ordezkari ematen zuten botoa.

## ETA OPOSIZIOAK BA AL DU HONI AURRE EGITEKO AUKERARIK?

Egon zen plataforma bat osatzeko ahalegina, baina pikutara joan zen alderdi ezberdinetako liderrek nahi baitzuten buru izan. Jendea nazkatuta dago, ez dute ezer jakin nahi. Gainera, PDGkoek jendea

erosten dute, eta han dagoen eskasiarekin zaila da ezetz esatea. Kostaldean berriz, Malabon, jendea kritikoagoa da, kultura maila handiagoa dute. Autodeterminazioaren aldeko mugimendu bat ere sortu da bertan.

## BERTARA JOATEN ZARENEAN LAGUNTZEKO ASMOAREKIN, ZER DA GARRANTZITSUENA?

Ulertzea ez duzula ia ezer egingo. Hemendik joatean pentsatzen duzu mundua aldatuko duzula. Baina behin han ezer gutxi egin daitekeela ikusten duzu. Azkenean, mundua da zeu aldatzen zaituena.

## Etxera itzultzean

## URTEBETE BERTAN EMAN ONDOREN, NOLAKOAK IZAN DA ITZULERA?

Itzuli eta hurrengo egunean Zarautzen aurkitu nintzen Euskal Jaian. Laino batean nengoen oraindik,

## Suge bat dago sukaldean!

Afrika holakoxea da. Batean argindarraren tuboa suge bat bihurtzen da, Elenak kontatzen duen bezela: "Hasieran ez genuen argindarririk. Gero, jarri zigutenean, tubo batzuk jeisten ziren goitik behera, eta halako batean tubo bat mugitzen ari zela iruditu zitzaidan. Suge bat zen. Goizeko ordu txikiak zirenez, ezin inori laguntza eskatu. Halako batean zulo batetik sartu eta desagertu egin zen. Beste egun batean, etxean sartu eta bi puntu distiratsu ikusi genituen ilunpean. Sugea berriro. Etxeraino lagundu zigun bertako medikuari deitu eta burdin batekin hil zuen, batek linternarekin argia eman eta bestea mahai gainean kamararekin geunden bitartean.

jeitsi ezinik. Gero pixkanaka eguneroko martxa hartzen da. Hala ere, askotan gogoratzen naiz Gineaz, eta han bizitakoaz. Horrelako egun batean halako gauzak egin nituen... horrelakoak esaten jarduten dut.

ELENAK EZ OMEN DU HERRIA OSO ALDATUTA AURKITU (PAOLEKO MUTURRA LUZEAGOA, HORI BAI). ORAIN, BESTE PROIEKTU BATZUK DITU BURUAN, BAINA HORRELAKO ESPERIENTZIA BATEK BETI MARKATZEN DUELA ONARTU DIGU. MODU BATERA EDO BESTERA, MUGIMENDU HONEKIN LOTURA MANTENTZEKO ASMOA DU. ■

ILE APAINDEGIA

**Merca**  
**Uranga**

Etxezarreta, 19  
Telefonoa: 862342

20750 ZUMAIA

**TXALAPARTA**  
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)








Tel. 14 30 86  
Fax. 43 06 37

**JEJAJAR**

**LOREDE NDA**


LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK

Telefonoa: 860375  
20750 ZUMAIA






1











# Gazte batzordearen etorkizuna jokoan



Azken orrialdean ikus dezakezuen bezala bilera izugarri garrantzitsu baterako deialdia egin du Zumaiko Gazte Batzordeak.

Bilera honetan gaur egungo egoera ikusi ondoren, aurrera egitea merezi duen ala ez eztabaidatuko da. Ezezkoa erabakiko balitz taldea desegitea izango litzateke hurrengo pausoa.

Gazte guztiok gonbidatuta zaudete, beraz, hilaren 15ean egingo den bilerara.



*Lau urtetan zehar ekintza ugari egin dira herriko gazteen mesedetan.*

## ZGB: hiltorian ala hilda?

Azaroaren 15ean erabakiko dugu. Zurekin ala zu gabe, baina Zumaian oraindik gazte sentitzen garen guztion artean egin beharreko zerbait izango da. Agian ez zara konturatzen, baina gauza asko gal daitezke: lau urteko borroka herriko gaztediaren alde, festetako giroa bultzatzea, herriko informatzaile izatea, eta herrian gazteok sortu eta bultzaturiko dinamika bat bidean gera daitezke. Eta guztia zu eta zu bezelako beste hainbat gaztek nahiago dutelako eguna tabernan edo etxean ematea, ezertan inplikatzeko baino.

Edo agian hori ez da zure arazoa. Agian zu ez zara gazte sentitzen. Hamasei urtekin gazteegia zara, eta hogeita bostekin zaharregia. Eta bitartean ez duzu denborarik, unibertsitatean ikasi behar duzulako: Payaso!

Edo bestela iruditzen zaizu ZGB herri mailako sekta bat dela. Joan al zara inoiz bilera batera horrela pentsatu aurretik? Edo akaso ez al duzu inoiz parte hartu guk festetan edo urtean zehar zuretzako eta zu bezela Zumaian dauden gainontzeko gazteentzat antolatu ditugun kontzertu eta ekintzetan? Ez al duzu inoiz irakurri guk argitaratzen dugun Baleike hau? Zer diozu orduan?

Gaztea bazara (eta gaztea edonor izan daiteke) zatoz azaroaren 15ean gaueko 9 t'erdietan Oxforra eta ez ezazu ZGB hiltzen utzi. Merezi duelako.

Benetan.

*Josu Waliño*

Auto - Konponketak

# ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA

Telefonoa: 860201



Tfnoa: 143379

# HeteroSEXualitatea, homoSEXualitatea edo zer?

Ba al dago galdera hau erantzungo duenik? Badago gizartean pertsonen arteko harremanak eteteko, zehazteko eta arautzeko nahia. Txikitatik familia, eskola, eliza eta abarren eskutik esana geratzen zaigu, arautua ez dagoen aukera egitea, hau da, bakoitzaren sentimenduak sexu berdineko pertsona bati zuzentzea gaixotasun eta pekatu galanta dela.

Zaila egin digute sexu berdineko pertsonen zuzendutako sentimendu sexualak errekonozitzea eta are gutxiago askatasunez onartzea. Honela aukera bakar baten aurrean erabakitzea besterik ez digute erakutsi. Rol sexualak, emakume eta gizonen paperak oso argi dikotomizatuak daude.

Emakumeak paper pasiboa eta sumisoarena eskuratuz eta gizonen berriz dominante eta independente papera jasoz. Paper hauen hausketak ez ditugu oso modu egokian asumitzen. Beti dugu etiketatxoren bat ezartzeko sentsibilitatea nabari adierazten duen gizonari edota sumisioa onartzen ez duen emakumearentzako. Hainbat modu ezberdin daude pertsonen arteko konportamendu sexualak azaltzeko eta bizitzeko.

Egia da sexu berdineko bi pertsonen artean bizitako edozein erlazio ez duela aukera nahiko ematen haur baten jaiotzarako. Honek beldurtuko al du sistema? Produktzioa gutxitzea? Azken finean "merkantilismo" batean oinarrituta bizi dira hainbat eta hainbat erlazio; honek ez dio kreatibitateari eta bakoitzaren sentimendu eta aukerei biderik ematen. Beraz, finkatua dagoen egoeraren aurrean beste aukera ezberdina egiterakoan "beldurra" dugu nagusi.

Ez da homosexualitatea bera azalpena behar duena, bere aurka eraiki diren tratuak eta prejuizioak baizik. Hauei kendu behar zaie maskara.

Pertsona bezala ez ditugu gure sentimendu sexualak ukatu beharrik. Sexu berdineko pertsonen zuzendutako sentimendu sexualak gozatzeko aukera badago. Praktikara eramanez gero, besten juizio moralik jasan gabe egiteko gai izan behar dugu.

Gizakiok eskubidea dugu besteekin kalte egiten ez dizkieten sentimenduak aztertu eta azaltzeko. Zergatik klasifikazio baloratu bat? Asumitu beharko dugu, sexu berdineko pertsonen artean bere maitaleak aurkitzen dituztenak ez direla aukera zuzenera bideratuta dutenak baino ama okerragoak, ezta gaitasun gehiago duten mekanikoak, ezta epaile okerragoak ere.

Egia da aukera bera egiten duten pertsonen artean taldeak sortzen direla; honela baditugu gure inguruan homosexual, lesbiana eta beste hainbat talde. Hauek beharra sentitu dute bere espazioa erreibindikatzeko.

Hain pertsonalak diren maitasun erlazioak askatasunez aukeratzea eta hauek kaleratzea badirudi arrisku bat dela.

Baina argi dagoena zera da, homosexuala eta heterosexuala bezala klasifikatzeak elkarrengandik banatzeko bakarrik balio dutela. Denok gara gizaki sexuatuak! ■



**Ainhoa Iturbe**



**GILANO**  
LIBURUDENDA

Paperdenda  
Aldizkariak  
Fotokopiak  
Enkuadernazioak

**Baltasar Etxabe 7**  
Tlf: 14 31 91



**ZURICH**

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1  
Tel. Faxa. 860169

**Alberdi**  
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6  
Tlf: 861155



**ITXASO  
MARTIN**

Ez daukat telebisorik, baina edukiko banu piztu ere ez.



**UNAI  
MANTEROLA**


Neri ondo iruditzen zait ze gustatzen zait, baina gustatzen ez zaionari ere beste irtenbide batzuk eman beharko zaizkiola uste dut. Gure etxean ez da iskanbilarik egoten futbolarekin, ia denoi gustatzen zaigu etxean.



**MARI JOSE  
TXAPARTEGI**

Neri ez zait batere gustatzen eta orduan nahi duanentzako ondo dago, baina neri ez zait ondo iruditzen. Etxean danai gustatzen zaie txikiari eta neri ezik. Baina ez dinat telebista gehiegi ikusten eta orduan ba bueno!

# Zer iruditzen zaizu telebistan horrenbeste futbol ematea?



**JOSU  
ZALLA**

Neri futbola ez zait gustatzen eta ez dit molestutzen telebistan botatzea, ze kanalez aldatzen dut eta kitto!



**HARITZ  
BULNES**

Neri ez zait batere gustatzen eta etxian ere askorik ez. Batzuetan programa batzuk kentzen dituzte futbolagatik eta hori ez zait batere gustatzen.



**XABIER  
ZENDOIA**

Gaizki ere ez zait iruditzen. Nere gurasoei gustatzen zaie baina batzutan gehiegi botatzen dute. Nik ez daukat afizio haundirik. Futbola jartzen badute ikusten det baina gustatu ez zait gehiegi egiten.



**XABIER  
URETA**

Neri ez zait larregi gustatzen eta nahiago izaten dut beste gauza bat ikustea. Gainera bakarrik bizi naiz eta orduan ez dut arazorik izaten.

ARRAIN ETA  
MARISKOAK

**7**

BARAZKIAK  
ETA  
AURREZ  
PRESTATUTAKO  
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

**M**

**MENDI - ONDO**

ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- \* Banakoak
- \* Kolektiboak
- \* Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

Axular 14  
20750 ZUMALA

Telefonoak:  
860074 - 861569

## Mikel Sasiain bikain Donostiako maratoian

Urriaren 13an Donostian jokatu zen maratoian Mikel Sasiain izan zen zumaierren artean lehen postuan helmugaratu zena, 42,195 metroak egiteko 3 ordu baino gutxiago behar izan ondoren. Bere atzetik sartu ziren Julian Igual eta Jose Luis Arroiabe beteranoak, eta aipagarria da hauek ere burutu zuten lasterketa. Guztira bost zumaier izan ziren maratoia froga gogor hau bukatu ahal izan zutenak.

### SAILKAPENA

126. Mikel Sasiain	2:55:41
225. Julian Igual	3:05:09
275. Jose Luis Arroiabe	3:10:29
361. Jon Sasiain	3:20:32
390. J. Ignacio Alkorta	3:25:24

Bestalde aurten ere 60 zumaierretik gora joango dira Behobia eta Donostia arteko 20 kilometroak saltaka egitera. Gehienek polikiroldegiak jarritako autobusa erabiliko dute bertara joateko. Animo denei!



*Sasoi ederrean dago Mikel.*

## Aiarzaguena aurrena Txitxarro-Zumaia jaitsieran

Euskadi taldeko Iñaki Aiarzaguena zaldibartarra izan zen Txitxarroko frogaren 14. edizioan txapela lortu zuena. Bere atzetik sailkatu ziren Jose Luis Arrieta (Banesto) eta Alberto Leanizbarrutia (ONCE). Ohi bezala Olano eta Indurain ez ziren azaldu, baina bertaratu ziren txirrindulariek giro ederrean amaitu zuten denboraldia.



## Huntza, o.k.



DISEINUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ, ZUHAIXKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d TIF: 143079

SERIGRAFIA

# KUKUTZ

baltasar  
etxabe 7 ZUMAIA

Tel:  
860569



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19  
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433  
Fax: 861067



## EMAITZAK

Landeta kar. 2 - Leize taberna 1  
 Intxausti har. 2 Ipurbeltz 2  
 Basarri 2 - Kabi-Genelek 6  
 Inpernupe 0 - Urberu 4  
 Ajax Pino 2 - Azkue & Eguzki 2  
 Basusta 3 - Ganbara 1  
 Gesem 2 - Zumea taberna 3  
 Buitraker 1 - Axier kirolak 7  
 Landeta kar. 2 - Buitraker 0  
 Intxausti har. 5 - Basarri 4  
 Azkue & Eguzki 3 - Gesem 4  
 Ipurbeltz 3 - Mendi-Ondo 6

## HURRENGO PARTIDUAK

Azaroaren 9, 10, 16, 23 eta 24an

# 17 talde plaierotako lehen fasean



Talde berri ugari hasi dira aurten plaierotan: Gesem, Intxausti, Basarri...

Azkenengo urteetako talde kopururik handiena lortu dute aurten antolatzaileek eta aipagarria da aurten ere kanpotik zenbait talde etorri direla: azpeitiarrak, zestoarrak...

Axier kirolakekoak berriz ere herrira bueltatu dira, iaz Zarauzko txapelketan jokatu ondoren.

Gabonak bitartean lehen fasea jokatuko da eta hiru taldeetan lehen bi postutan sailkatzen direnak izango dira LIGAn sartuko direnak, eta gainontzekoak KOPAn arituko dira. Hainbeste talde izanik, larunbat askotan ere jokatu beharko dituzte partiduak Itzurungo hondartzan. ■

## 1. taldea

Axier kirolak  
 Landeta Karrozeria  
 Ekin Buitraker  
 Inpernupe  
 Leize taberna  
 Urberu sagardotegia

## 2. taldea

Ajax Pino  
 Azkue & Eguzki  
 Basusta Erretegia  
 Ganbara  
 Gesem  
 Zumea taberna

## 3. taldea

Basarri jatetxea  
 Intxausti harategia  
 Ipurbeltz-Gaztañaga  
 Kabi-Genelek  
 Mendi-Ondo elek.

**goofy**  
 HAUR JANTZIAK  
 Amaia plaza, z/g  
 Telef. 860959  
 ZUMAIA

**augustin**  
 HARATEGIA  
 URDAITEGIA  
 Itzurun Zubaitz bidea, 1  
 20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

julio curiel  
 PELUQUERO  
 GIZONEZKOENIZAT  
 ILE-APANDEGIA  
 Erribera kalea 23

# IGOR BERISTAIN, MENDITIK ERREPIDERA

## Ziklo-krosa utzi eta buru-belarri helduko dio errepideko txirrindularitzari

Nola diren gauzak. Zumaiar gazte honek, zelai eta lokatz artean eman ditu onenak txirrindularitzan. Orain ordea, egoerak behartuta, errepideko kompetizioan zentratzea erabaki du Kaiku talde afizionatuarekin.

Urtebeteko kontratua sinatu du Igor Beristainek Kaiku taldearekin. Iberdrola eta Orbea bezalako beste talde ospetsuen eskeintzak ere izan ditu, baina azkenean esnekien enpresarekin arituko da datorren denboraldian.

Ziklo-krosa utzi, eta errepideari heltzeko zeintzuk izan diren arrazoiak galdetu diogu. "Ziklo-krosa momentu hauetan oso egoera txarrean aurkitzen da Euskal Herrian. Helduentzat oso lasterketa gutxi, eta erakunde publikoek ere ez dute ezertxo ere lagundu". Erakundeak aipatzerakoan, batez ere eskeinitako babes ekonomiko eza azpimarratu nahi da.

Azken urteetan diru pixka bat mugitu da, sarietan eta nazioarteko



Kaiku taldean denboraldi ona egiteko itxaropena du Igorrek.

proba garrantzitsuak antolatuz (Zarautz, Telleriarte,...). Hasi berria den denboraldi honetan alabaina, enpresek eta erakunde publikoek atzera egin dute, eta jakina, beraiekin batera, diruak. Egoera triste hau ikusirik, Igorrek errepideko kompetizioan murgiltzeko erabakia hartu du.

Gainera bere esanetan, "neure burua probatu nahi det; errepidean zerbait egiteko, punta-puntan egoteko gauza naizen jakin". Honetarako talde aiposean dagoela ez dago zalantzarik, izan ere Kaiku taldea afizionatuetan estatuko onentsu-enetakoa degu. Txirrindulari askok ematen dute saltoa bertatik profesioalera, eta txukun xamar ibiliz gero, eskaparate egokia izango dela, seguru.

**"Neure burua probatu nahi det errepidean, punta-puntan ibiltzeko gauza naizen jakin"**

Gipuzkoako txapeldun birritan eta Euskadikoa beste bi aldiz ere bai, etorkizun handia zuen ziklo-krosean. Otsailetik aurrera ordea, errepideetan ikusiko degu jo ta ke, eta mendi aldean lortutakoa berdintzea zaila izango duen arren, zortetik hoberena opa diogu Igorri bide berri honetan. ■

**ENARA, S.L.**  
INPRIMATEGIA



Amaia Plaza 15  
Tlf: 862458



ARRADI-KUSTATEGUIZ, 4-A  
ZUMARRA  
TEL. 863001

HARRATEGIT  
URDATEGIT

**ENTER INFORMATIKA**  
BALTASAR DE ETXABE z/g  
ZUMAIA

☎: 86.11.75  
☎: 86.05.50



ORDENAGAILU SALMENTA  
SERBITZU TEKNIKOA  
HARDWARE ETA  
SOFTWARE  
INFORMATIKAKO KURTSOAK

KOSTA  GAS

GAS ETA  
KALEFAZIO  
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

**expert** 

**ELEKTROGAILUAK**

Mertxe Aizpurua  
expert eta  
Repsol-Butanoren  
Banatzaile Ofiziala

**GURE TXOKOA**  
**TABERNA**  
Kaxuelita eta pintxo  
ezberdinak  
San Pedro kalea Zumaia



Zinea




**TRAINSPOTTING**  
(1996) 94 min.

ZUZ.: Danny Boyle  
AKT.: Ewan McGregor  
Robert Carlyle

*Trainspotting*, Britainia Handiko jende batek duen afizio baten hitz ingelesa da: tren geltokian jarri eta aurretik pasatzen den trena zein geltokitik eta zein ordutan atera, eta noiz eta nora helduko diren asmatzen saiatzen dira.. Tontakeria bat, ez al da hala? Ba filme hau egin dutenentzat, denborapasa hau eta heroina zainetan sartzea antzeko zerbait da; inora ez daraman zerbait. Pelikulak eskoziar gazte batzuek drogekin dituzten arazoak komedia moduan kontatzen ditu.

Antzerkian eta telebistan hezitako Danny Boylen bigarren lana da *Trainspotting*. Aurretik arrakasta haundia izan zuen beste filme bat zuzendu zuen: Donostiako zinemaldian saritua izan zen *Tumba Abierta* (kasualitate bat: Zumaiako zine forum taldeak bota zuen azken pelikula izan zen). *Trainspotting* azken hamarkadako britainiar pelikularik onena omen da. Batzuen ustez, *La Naranja Mecanicaren* ondoan jarri daiteken pelikula bada, beste batzuentzat, aldiz, bideo-klip erraldoi bat besterik ez da. Gure ustez, nahiz eta bukaera nahiko eskasa izan, azkenaldiko filmerik garrantzitsuenetakoa da.

Zine kritikak	EGIN	DV	Egunkaria
<b>Trainspotting</b> Zuz: Danny Boyle	★★	—	★★★
<b>Mullholland Falls</b> Zuz: Lee Tamahori	★★★	—	—
<b>Twister</b> Zuz: Jan de Bont	★	—	★★



**IRAKURKETARAKO AUKERAK**

Hemen dezue Udako liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta goza itzazu ahal dezun neurrian



**Euskaraz**

**Gaztelera**

- Hemen gauak lau ertz ditu
- Soweton kondatuak
- Azkenaz beste
- Suetena Belfasten
- Mundu mingotsa
- Gaua galdu arte

- Mikel Iburguren
- Ellen Kuzwayo
- Anjel Lertxundi
- Imanol Murua
- Josef Skvorecky
- Juan Luis Zabala

- El jurado
- El día de la independencia
- Tu nombre envenena mis sueños
- Los Angeles perdidos
- Soy un escritor frustrado
- Trainspotting

- John Grisham
- Richard Ford
- J. Leguina
- Manuel Leguineche
- Jose Angel Mañas
- Irvine Welsh

**Gaztetxoentzat**

- Lena teiltuan
- Izar bat naiz
- Lurrak berdinduko nau

- Peter Härtling
- Inge Auerbacher
- Anjel Lertxundi

**Haurrentzat**

- Galiako gozoki gozoak
- Orain badakizu
- Betiko ipuin ederrenak: Hiru txerrikumeak, e.a.

- Uderzo, Grabos
- Jack Long

**ERROTA**  
**ERROTA**  
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01  
ZUMAIA

**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

**ARGIA**

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93  
ZUMAIA



Dagoeneko Zumaiako Udal Ludoteka martxan hasia da, eta bertako bazkide egiteko aukera zabaltzen zaie Zumaiako 3tik 12 urte arteko haur guztiei. Bazkidetza 1000 pezetakoa da eta bazkide izanik, astearte, asteazken, ostegun eta ostiraletan arratsaldeko 5etatik 8etara Ludotekako atek zabalik izango dituzte.

Bestalde, azaroan bi larunbatez (9 eta 23an) arratsaldeko 3,30etatik 6,30etara, Ludoteka zabalduko da 12, 13 eta 14 urteko gaztetxoentzat. Hauek bertara azaldu eta sarrera dohainik izango dute.

**LOGOTIPO LEHIAKETA**

Zumaia sortu zenetik 650 urte betetzen direla-eta, beste zenbait ekintzen artean logotipo lehiaketa bat jarriko du martxan Udal kultur Batzordeak. Edozein zumaiarrek parte hartu ahal izango du, eta logotipoaren diseinuarekin batera erabilpen proiektutxo bat ere aurkeztu beharko da, 1997ko ekitaldien iragarkietan eta material grafikoan erabiltzeko ideiak emanaz.

Epea abenduaren 13an amaituko da eta sari bakarra egongo da, 70.000 pezetakoa.

**GAZTEOI  
ZER AXOLA**

Udal Gaztedia Batzordeak hilabete honetarako Zumaiako gazteei zuzenduriko zenbait hitzaldi antolatu ditu, denak ere Forondan arratsaldeko 7,30etan:



14ean "INTERNET-ERA HURBILDUZ" hitzaldia eta froga (Angelo Cacciola)

20an "GAZTEEN BIZIPEN SEXUALA" (Amaia Vazquez)

28an "AEROBIC, ABENTURA ETA NATURA INGURUKO KIROLAK" (IVEFeko irakasleak)

**xirula**



ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA  
Tel. 861705

**KALARI TABERNA  
JATE TXEA**

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA

AHOLKULARITZA  
JRUZE  
ASESORIA

Erribera, 17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

**AUTOS ZUMAIA**

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45  
Tel.: 851485



**UROLA  
TXIRINGITOA**

Eguneko menua  
Parrila bereziak

Gernika parkea

Tel.: 862656



## DIPOSITIBA SAIOA



Udazkeneko emanaldiak hasi dira dagoeneko eta hilaren 15ean JOSEBA UGALDE etorriko zaigu "25 Igoera Alpeetan" emanaldia aurkeztera. Ohi bezela, arratsaldeko 7,30etan izango da, Forondan.

## TXERRIBODA

Hil honen 9rako Inpernupe Kultur Elkarteak, txerrikiz osaturiko afari bat antolatuko du. 2.000 pezetaren truke txerriki ugari izango da, azaz lagunduta: mondongoa, odolkia, kostilak, xerrak, solomoak, hirugiharra..., guztia sagardoarekin eta Errioxako ardoarekin bultzata. Postrerako gaztainak egongo dira. Afaria gaueko 9etan izango da eta txartelak aurrez jaso behar dira.

## ASTE MIKOLOGIKOA

Zumaiako Natur Taldeak antolatuta, (Inda-Mendiren laguntzarekin) aurten ere ekitaldi ugari izango dira.

Azaroaren 6an "Euskal Herriko perretxiko toxiko eta aluzinogenoak" buruzko HITZALDIA izan da; 7an, berriz, BIDEO EMANALDIA: oinarrizko mikologiari buruz. Azaroaren 8an arratsaldeko 7,30tan perretxikoak klasifikatzeko oinarrizko pausoak gaiarekin mahainguru bat izango da, Aranzadi taldeak zuzenduta.

Azaroak 9 goizeko 8retan perretxikoak biltzeko IRTEERA.

Azaroak 10, goizean 11etatik 14tara, eta arratsaldean 5etatik 8tara, bildutako perretxikoekin eginiko ERAKUSKETA izango da.



## IPUIN KONTAKETA

Itziar Zubizarretak "ITSASOKO IPUINAK" kontatuko ditu, azaroaren 21ean arratsaldean seiak aldera Forondako haurren liburutegian.

## BANDA ETA TXISTULARIAK

Santa Zezili eguna ospatzeko, batetik, TXISTULARIEN ALARDEA izango da azaroaren 17an.

Bestetik, hurrengo asteburuan zehar udal musika bandak 3 ekitaldi egingo ditu. Ostiralean, hilak 22, KALEJIRA informal bat egingo du. Larunbatean, hilak 23, berriz ere KALEAN ZEHAR ibiliko dira, oraingoan serioago. Eta bukatzeko igandean, hilak 24, Aita Mari zineman KONTZERTU bat eskeiniko du.



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala


**ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
Tel./Faxa: 143143

**Galdona**  
burdindegia

Mendaro marinela, 1  
Juan Belmonte, 15  
Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330

po



Izen motz eta garbi honen atzean, musiko familia bat ezkututzen da. Beraiek ImanolPo, IgorPo eta JonPo dira. Musika zela eta elkarrengana orain lau bat urte bilduak, garai ezberdinak bizi izan ditu beren elkarbizitzak. Haseran The Pack izenpean hasi zen jotzen hirukotea. Garai hartan laugarren lagun batek, Oskarrek jotzen zuen beraiekin. Abeslaria Oskar zen, eta aitortu digutenez, bera zen estiloa markatzen zuena. Laukote gisa asko mugitu ziren, eta martxa polita ikusten zen beraiegan. Baina Oskarrek taldea utzi behar izan zuen, eta horrek

suposatzen zituen aldaketak zirela medio, hirukotea lokalean sartu zen buru-belarri, lan neketsu eta luze baten ondoren guztiz birmoldatuta kanporatzeko.

**Maketa grabatzea esperientzia polita izan da, emaitzarekin oso gustora geratu ez diren arren**

Denboraldi honetan, aipagarria litzateke Jonek taldearen gidaritza hartu izanak suposatu duen estilo

aldaketa. Beraiek esan digutenez, PO-k The Pack-ekin duen zerikusi bakarra kideak berdinak direla da. Po etapa berri bat bezala definitu dute, lehengotik oso ezberdina den etapa bat. Abestiei buruz galdetu diegunean, bi gauza azpimarratu dizkigute. Musikari dagokionez, estilo finko batean mugitzen omen dira, nahiz eta margen handiarekin jardun. Entzuten dituzten taldeen influentzia nabaria omen da beraiegan. Letrei dagokionean berriz, ingelesez abesten duten abestiren bat kenduta, euskara hutsean abestearen aldeko apostua egin dute. Zeri abesten dioten? Ba eguneroko gauzei. Oro har, eta ezer konkretuaz izan gabe, eguneroko gauzei.

**MAKETA**

Isilalditik helburu finko batzurekin irten da taldea, beren burua ezagutzera eman eta musika zabaltzea hain zuzen ere. Horretarako egokiena maketa argitaratzea zela iruditu zitzaion, eta lagun azpeitiar batekin, Atxuya hain zuzen ere, beren nahia betetzeko posibilitatea sortu zitzaion. Hala, nahiko presaka eta inungo luxurik gabe, lortu dute grabaketa egitea, eta hilaren hasieran ikusi du



500 maketa kaleratu dituzte, koadernotxo eskusibo banarekin.

**baiezulo**  
 inportaturiko erropa  
 eta artisautza  
 Basadi 3 Zumaia

**TXOKOA**  
 T  
 B  
 E  
 R  
 N  
 A  
 Artadi  
 Auzoa  
 86 21 89

**IHINTZA**  
 taberna  
 Tf: 860472  
 Ortega y Gasset, 3

argia beren lanak. Aitortu digutenez, esperientzia polita izan da. Kontuan izatekoa da grabaketa ez dela estudio batean izan, beren lokalean baizik, horrek suposatzen duen zailtasunekin, eta hori maketaren kalitatean somatu dute.

**PO-k The Pack-ekin duen zerikusi bakarra kideak berdinak direla da**


Ez dira oso gustora emaitzarekin. Baina hala eta guztiz ere oso positiboki baloratu dute esperientzia. Gainera lan honen helburu nagusia beren izena zein musika ezagutzera ematea da, inungo pretentzio anbiziosorik gabe. Hori bai, sariren bat etortzen baldin bada, gustora hartuko dute. Hala, maketa hainbat lehiaketatara aurkezteko asmoa dute, Euskadi Gazteakoa kasu (bide batez, beraien aldeko botua ematera gonbidatzen zaituztete). Baina garrantzitsuena, maketak kalean izango duen harrera da, eta honen ondorio gisa kontzertuak. Izan ere mugitzeko gogo handiz dago taldea.

**ZUMAIANZER?**

Gure herrian musikaren inguruan dagoen panoramari buruz mintzatu garenean, hiru hutsune nabari azpimarratu dizkigute. Alde batetik, kontzertuak antolatzeke lokal baten falta. Gazte zumaiarrek kontzertuak entzuteran kanpora joan behar izaten dute, eta egokiago deritzote kontzertuak ekartzea. Musikarako zaletasuna handia da Zumaian, eta zaletasun hori asetu beharra dago.

Bestalde, eta herriko musika taldeei dago-kionean lokalen premia nabarmendu dute. Lokalak behar dira, inungo luzamendutan ibili gabe.

Eta azkenik, taldeen laguntzarako, udaletxeari zera proposatzen diote: berbena taldeetan zenbat diru botatzen den ikusita, egokia litzatekeela urtean behin herriko taldeen kontzertu bat antolatzea, kontzertuaren truke beren beharretarako diru bat emanaz.



*POtarrek, helikopterotik ikusita.*

Besterik gabe, POrri zorte ona opatzea besterik ez dugu. Ea bitizta luze eta osasuntsua izaten duen taldeak!

**KONTZERTUREN BATERAKO EDO, PO-REKIN HARREMANETAN JARRI NAHI BALDIN BADUZUE, PO KONTAKTUAK: 861984. ESKERTUKO DIZUETE.**

  
**AIZPURUA**  
LIBURUTEGIA  
Aitu-Mari Auzategia, 17  
Telefona: 861569  
20750 ZUMAIA  
OPARIK

**JOXE MANUEL**  
**KUPONCE**  
Kupoiak tailer, etxe eta dendetara eramaten dira.  
Tel: 862347-861001

  
**JUSTA TABERNA**  
EGUNEROKO BAZKARIAK  
Erribera kalea 20

  
**NIKOL-ENEA**  
taberna  
Amaiako plaza Tfnoa. 861440

**DISKO-BAR**  
*Margi*  
  
Alai Auzotegia 2.

# Motxian hi!



Nor: *Eulali Alberdi*  
Zer: *Forondako lilia*

-ZEIN DA FORONDAKO LORERIK POLITENA?  
DANAK GUSTATZEN ZAIZKIT.  
-GOZAZALEAK AL DIRA ETXEAN?  
EZ, LAGA DET ETXIAN POSTRIAK EGITIA, INORK EZ  
DUALAKO JATEN.  
- ONDOEN ATERATZEN ZAIZUN POSTREA?  
BRAZO JITANOA DALA ESANGO NUKE.  
- ZER JATEN DU PIXKORREK? (TXAKURRAK)  
BERDURA PIXKAT ARROZAKIN ETA OILASKO  
ESKELETUA, DANA GATZIK GABE.  
- BOLILLOAK, TAPIZAK, GANTXILOA...  
ESKULANETARAKO OSO TREBEA OMEN ZARA.  
ASKO GUSTATZEN ZAIT DANA, BAINA EZ DAUKAT  
NAHI AINA ASTIRIK HORRETAKO.  
-GERO ETA JENDE GEHIAGO EZKONTZEN DA  
FORONDAN.  
BAI, NERETZAKO BESTE LAN BAT. ARROZA ETA  
ASKO BOTATZEN BADE EZ ZAIT BATE GUSTATZEN.  
-IKUSTEN AL DITUZU BERTAKO ERAKUSKETAK?  
BAI, ZAITTU ERE ITEN DITTUT. PINTURAKUAK  
GUSTATZEN ZAIZKIT GEHIENA.  
ZER MODUZKOA DA FORONDAKO MAKINAKO  
KAFAA?  
EZ DET PROATU, EZ DETELAKO BATE HARTZEN,  
BAINA NERIA HOBIA OMEN DA.  
-AMETS BAT?  
PIXKAT LASAJO BIZITZIA.  
- BERTSOLARI BAT?  
ORAINGUEN ARTIAN IÑAKI MURUA. BESTELA  
LAZKAO TXIKI.  
- MUSIKA GUSTOKOENA?  
XUABIA, KLASIKUA GUSTATZEN ZAIT.  
- AKORDEOIA JOTZEN AL DU FERMIK ETXEAN?  
EGUNERO. GOIZIAN EGUNERO ENSAIATZEN DU ETA  
LAN ASKOKIN BANA OZ DIT BATE GRAZIRIK ITEN.

## Kontu-kontari

## HAIZETIK BIZI

60ko hamarkadaren amaiera aldean Aberri Eguneko manifiesto harrapatua izategatik edo beste mila aitzakia zirela medio poliziak isun asko jartzen ziren herritarrei eta ez nolana hikoak: 10.000 pezetatik hasita 25.000 edo 30.000 pezetara arte. Isun hauek, beraz, bi, hiru edo lau hilabeteko soldaten adinakoak izaten ziren. Honela, ba, isuna ordaindu ordez gazte orok nahiago izaten zuen gartzelan bi, hiru, edo lau astetan eduki zezaten, eta Euskal Herriko herri denetako kontsigna "isuna ordaindu ordez gartzelara joan" bihurtu zen.


Garai honetan Ondarrun guardi zibilak Bixentaren etxera igo ziren bere semeari ezarritako 25.000 pezetako multa kobratu asmoz. Atea jo eta han agertu zitzairen Bixenta galdetuz ea zer nahi zuten. Txapelokerrek euren arrazoiak adierazi bezain laster gure Bixentak, tuntun plantak eginez, etxean dirurik ezaren zergatia azaldu zuten:

--Mal tiempo... Averia... poca partilla... pescado lejos y pequeño...

--Bueno, pero ustedes de qué viven?! Del aire o qué!! --haserre guardi zibil bat.

--Del aire vivir los viajeros de abanicos --izan omen zen etxeokoa jatorraren erantzuna.

Imajina ezazue zer aurpegikeraz geratu ziren txapelokerrak.



**CARLIN**  
OFIMARKET

GEHITZEN DOAZEN EROSKETEKIN,  
"POCAHONTAS" BIDEO-ZINTA  
OPARITZEN DUGU.  
ESKOLA-MATERIALA.  
FOT. 5 PEZETAN

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453



ALBAITARITZA  
KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
-ALBAITARIK-

Basadi, 7 behea  
20750 ZUMAIA  
Tel. 143310

LARRIALDIK  
· 24 orduetan  
· Zeure etxean  
· Telef. 900-282828  
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR  
FOTOKOPIAK



Basadi 14, behea - Tlf: 143120

**LANA**

Eskusoinuak konpontzen ditut, marka eta modelo guztiak. Deitu lasai 470001 telefonora, arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean, ostegunean ezik.

Ostiral eta larunbat gauetan haurrak zainduko nituzke. Deitu 861914 telefonora (Esther).

**KLASEAK**

Klase partikularrak kurtsoan zehar: fisika, kimika, matematika, zientziak... Maila guztietan: REM, LH, LOGSE, BBB, UBI, DBH. Karrerako lehen urteko Fisika eta Kimika ere bai. Klaseak euskaraz nahiz gaztelerez. Harremanetarako deitu hauetako telefono batera: 861834 (Joxean) eta 862684 (Imanol)

**AGURRAK**

**KABI**  
Durangoko diska axoka laster da!!!

Bilbotarra eta Badiula!  
Bi xoltero gutxiyo.

Mofli! Ea noiz pasatzen haizen Ludotekatik hurrei hitzaldi bat ematera. Enterao!

Edu! Ezkontzea huala? Eta panderua pakian lagako al dek?


**Salerosketak**

**YAMAHA 250 Special** motoa salgai. Sei urte ditu eta beti aterpean egin du lo. 250.000 pezeta, urtebeteko aseguru eta eztra dexente barne. Tel: 861224

**Salmenta puntuak**

- JESUSKOA**
- ERROTA (ERRIBERA)**
- ERROTA (BASADI)**
- ERROTA (J.BELMONTE)**
- OGI BERRI (AMAIA)**
- OGI BERRI (BASADI)**
- ARKUPE OKINDEGIA**
- AIZPURUA LIBURUDENDA**
- OLANO LIBURUDENDA**
- LOITZ LIBURUDENDA**
- ALAI JANARIDENDA**
- NIKOL KAFETEGIA**
- INPERNUPE**
- ZALLA ERRETEGIA**
- FOTO GAR**
- ARROA BEHEA**
- SAN TELMO JANARIDENDA**

**L**ehiaketa Goxoa



Zein da azken 5 urtetan gure moilan egon den unti honen izena?

Asmatzen duzuenon artean **TXAPARTEGI GOZOTEGIAK** emandako

**tarta zoragarri** bat zozketatuko dugu.

Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna Foto Mertxe, Txapartegin bertan edota gure buzoian uztea **azaroaren 22a** baino lehen. Zorte on!



Aurreko hilabeteko irabazlea **Mikel Caporossi Esteibar** izan da, oso gaztea izan arren ederki asmatu baitzuen buzoia **urriaren 5ean** inauguratu genuela. Lehengusu denen artean oso gustora jan omen zuten San Markos tarta goxoa.

# ZOB AZAROK

GAZTEA BAHAIZ  
— AGERTU —

# 15

AZKEN BILERA?

9½-tan OXFORD-en

